

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

6074

AGINDUA, 2021eko azaroaren 16koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Escuela de Ingenieros de Bilbao izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko.

2021eko urriaren 14an, eskabide bat jaso zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Escuela de Ingenieros de Bilbao izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko egin zen. Fundazioaren patronatuak 2021eko ekainaren 16an erabaki zuen aldaketa, eta eskritura publiko bihurtu zen Bilbon 2021eko irailaren 28an Francisco Arriola Garrote notarioaren aurrean, bere lankide Ramón Múgica Alcorta notarioaren ordezkariaren (protokolo-zenbakia: 2.388). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Aipatutako dokumentazioaren bitartez, fundazioaren estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzen dira eta, gainera, erabakiak telematikoki hartzeko aukera sartu da, iraupen mugagabea ezarri da patronatuko karguentzat, patronatua hautatzeko modua sinplifikatu da, baita haren egitura ere, eta Bilboko Ingeniaritza Eskolako zuzendari kargua duten edo izan duten pertsonen eskuratuko duten berezko patronatukideen izaera berriaz aipatu da. Era berean, batzorde eskuordetuaren iraupena mugagabea izango da, eta estatutu-testu osoa hizkuntza inklusiboago batera egokitu da.

Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau ebatzea, agindu baten bidez, bat etorritik xedapen hauekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Fundación Escuela de Ingenieros de Bilbao izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa, agindu honen datarekin, 2021eko irailaren 28an, Francisco Arriola Garrote notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 2.388), bere lankide Ramón Múgica Alcorta notarioaren ordezkariaren, egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 16a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.